

Ariketa hauek Ikasbileko 1946581 atazan aurkituko dituzu

**Audioaren erreferentzia:** JJ-42 Gosaria Tiffanisen

**Mailak:** B2-C1

**Funtzioak:** egindakoari buruzko azalpenak eman, lehen musuaren esperientzia kontatu

**Adierazpide linguistikoak:** lexikoa ( *musu, tontodromo, ausartu, elkarrekin, erromantiko, gosari ..*),  
izan ezik, *-zen/-tzera ausartu, -i beldur izan*


**Azken ekintza:** Lehen musua nolakoa izan zen elkarri kontatu

## EGITEKOAK

### 1-Ikasgelara etorri aurretik egitekoa.

1.1 Musuka nazazu elkarriketan lehen musuaz arituko direnez, aurrezagutzak aktibatzen jarduerak burutzen proposatzen zaie ikasleei testu-zati batean oinarrituta. Ikasgelako jardunaren hasieran horren berri emango dute. Testua irakurri ahala, idatzi behar dituzte:

- Lehen paragrafoan, musuek eraginkorrak izateko bete beharko lituzketen 5 baldintza
- Bigarrenean, berriz, egoki musukatzeko "p" hizkiak hasten diren 3 ezaugarri

 Helburua ez da zehazki jakitea zein zati falta diren, gaiari hurbilpena egitea baizik. Horrela, ikasleak musukatzeari buruz daukan aurreiritzia azaltzeko eta besteekin horretaz jarduteko aukera izango du.

**Testua:**



**Torloju musuak, xurgatzaileak, hortzez hortzekoak, sakonak, estuak, gozoak, pasioz beterikoak, bibotedunak, otso gizon musuak. Musu mota asko dago eta musukatzeak, gauza guztiek bezala, bere sekretutxoak ditu. Dena dela, gustuko neska-mutilarekin arituz gero, eta trebezia pixka batekin, gozamina ziurtatuta dago.**

Tomima Edmarkek "*Musuen liburuan*" **bost baldintza** jarri ditu musu batek dardarka utz gaitzan.

Lehenengo, . Bigarrena, . Hirugarrena,

Laugarrena, . Eta azkenik,

. Hala ere, erasoari ekin aurretik musuei buruz zenbait kontu jakitea komeni da, ez huts egiteko, noski.

Batzuetan, musua bikotekideen arteko maitasuna azaltzeko keinua baino ez da. Askotan, ordea, musuek indar erotikoa handia izan dezakete eta sexu jolasetara eramanez gaitzakete. Helburua edozein izanik ere, gai honi buruz hainbat liburu idatzi dituen David Colemanen arabera, **hiru "p"**

**behar dira egoki musukatzeak:** ,  eta . Ez ahaztu bikotekidearekin zaudenean eta bekatu egin ezazu!

<http://www.gaztezulo.eus/>

### **Zuzenketa (1.2 jarduerarako):**

**Idatzi musu batek dardarka uzteko bost baldintza:** 1. gustuko bikotekidea bilatzea 2. toki egokia aukeratzea 3. une egokia aukeratzea 4. bikotekideak musurik nahi ote duen begiratzea 5. "erasoari" ekitea



**Idatzi egoki musukatzeak "p"z hasten diren hiru hitz:** 1. pazientzia 2. patxada 3. pasioa

## 2- Ikasgelan amaitu ondoren egitekoak.



Elkarrizketan esan dituzten hainbat molderi erreparatzeko asmoz, esaldiak beste era batera idazteko ariketa.


## 1- Entzun aurretik

### 1.2 Musuak

  Ariketan idatzi dituztenak partekatuko dituzte. Ondoren, Azaldu jatorrizko testuko baldintzak eta hitzak. Azkenik,

### 1.3 Tontodromoa




  Jon eta Jone “tontodromoan” elkartzekotan gelditu dira. Horren harira, tontodromoa zer den deskribatuko dute eta euren herrian horrelakorik ba ote dagoen komentatu.

 Nahi izanez gero, Berria egunkarian Donostiako garai bateko [“tontodromoaz”](#) idatzitakoa erabili dezakezu zuzenketa gisa audioan entzungo dutenari hurbilpena egiteko:

(...) “Nerabe donostiarrok, gure lehen neska edo mutil horrekin, maitasuna deskubritzera gune bertsuetara jotzen genuen. Portura, adibidez. “Tontodromo” gisa ezaguna zen moilara. Bertan, bikote ugari biltzen zen elkarri hortzak jatera. “Tontolitoz” gainezka egoten zen moila hark zuri-beltzeko italiar pelikula batetik ateratakoa zirudien.” (...)






## 2- Entzun bitartean

### 2.1 Jonen arrazoia

   Jon izan da Tontodromora joatearen ideia izan duena. Ikasleek horren arrazoia zein izan den aukeratu behar dute.

**Zuzenketa:** Han eman nahi izan ziolako gaztetako lehen musua Joneri

### 2.2 Zer gertatu da?

     Elkarrizketari buruzko baieztapenak irakurri eta egia direnak aukeratu behar dituzte. Ondoren, animatu ikasleak gertatu diren bestelakoak esatera eta ikaskidearekin komentatzera. Nahi izanez gero, talde handian ere komentatu dezakete.

**Zuzenketa:**

- ✓ Jonek Joneri musua eman eta aitortu dio gaztetan elkarrekin ibiltzen hasi baino lehen, hara eramaten zuela musua emateko asmotan, baina ez zen inoiz ausartu.
- ✓ Jone harrিতa geratu da Jonen ateraldiarekin eta eskertu dio hain erromantiko egon izana.
- ✗ Jon teatero hutsa iruditu zaio Joneri eta eduki duen ideiarekin iseka egin dio. Gainera, bustitzen ari zirela leporatu dio eta haserre bueltatu da bulegora.
- ✓ Joni bizitzaren gailurrera iritsita dagoela iruditzen zaio eta orain lotsarik ez du lehen barregarriak iruditzen zitzaizkion gauzak egiteko.

✘ **Jone ez da batere aldatu Jonen ustez; lehen bezain Merkel omen da orain ere.**

### 3. ENTZUN ONDOREN

#### 3.1 Musukatzaile arrakastatsua izan nahi?



Unitatearen hasieran irakurri duten testuaren jarraipena irakurri eta musu egokia emateko aholkuak osatu behar dituzte, esaldi-zatiak dagokien lekuan jarrita. Hurrengo jarduerarako ideiak hartzea da helburua.

#### Ez azkar ibili, ez temati izan

Adituen arabera, musukatzerakoan, **ez da sekula azkar ibili behar**. Hasteko, **onena ezpainak arin eta gozo elkartzea da**, mingaina dantzan jarri gabe. Bestalde, begiak itxita, entzumen, ukimen eta usaimen **sentsazioak areagotu egiten dira**. Garrantzitsua da, halaber, **sudurretik arnasa hartzea**, musua gehiago luzatzeko. Dena den, **kontua ez da erronka botatzea** eta zinema munduko musurik luzeena gaingintzen ahalegintzea: hiru minutu eta bost segundo! Musu hori "*You are in the Army now*" filmean ikus daiteke, eta Jane Gimán aktorea, eszena errodatzerakoan, zorabiatzear egon zen, Regis Tommey-ren ahoari itsatsita. Hortaz, badaezpada **ez zaitez gehiegi luzatu**. Erietxea ez baita musuaren ondorioak gozatzeko lekurik erotikoa!

Sexu edo maitasun kontuetan bezala, musuetan ere **kalitatea kantitatea baino garrantzitsuagoa da**. John Barrymorek, AEBetako zinema mutuko galairik galaienak, film berean musu gehien emandako zaldunaren errekorra du. Film bakar batean ("*Don Juan*", 1926) 127 musu banatu zituen Mary Astor eta Estelle Taylor-en artean. Tematia gizona! Egungo emakumeek, ordea, **ez lukete bere musu uholdearekin gehiegi gozatuko**, izan ere, adituen arabera, garai hartako musuak hitz gutxitan labur litezke: lehorrak eta ahoa itxita di-da emandakoak.

Zorionez, praktika guztiak, urteak joan urteak etorri, hobetu egiten dira, eta musukatze ere ez da salbuespena.

[http://www.gaztezulo.eus/\(jarraipena\)](http://www.gaztezulo.eus/(jarraipena))

#### 3.2 Lehen musua



Binaka, bere lehen musuari buruzko ahozko kontaketa egitea eskatuko diegu ikasleei.

Horretarako, aukeran eman asmatutako egoera izatea. Horrela, kontaktari umore ukitua emateko aukera ere izan dezake.

Lehen musu hark irakurri duten testuko baldintzak bete ote zituen eta une hartan bizitako esperientzia partekatzea da helburua.

Adibide gisa, irakur dezatela gaztetxo baten bizipenak kontaktzen dituen testua, azpimarratuta dauden zatiei erreparatu.

Azkenik, talde handian, bizitakoak oso desberdinak izan ote diren komentatu eta ateratako ezaugarriak biltzen saiatu.



#### Adibidea:

16 urte nituela neska batez maitemindu nintzen, ez nion inori kontatu, denbora luzez niretzat gorde nuen, oso lotsatia bainintzen. Hilabete batzuk igaro ziren eta uda osoa

lagun moduan gelditzen eman genuen. Baina ez nintzen ausartu nire sentimenduak adierazten. Lagunei kontatu nien, eta haiek maite nuen neskari sentitzen nuena esan behar niola esaten zidaten. Baina saiakera asko egin nituen arren, ez nuen lortu uda osoan ezer esaterik. Urriko asteburu batean, ordea, zinematik irten eta agurtzerakoan, unetxo bat itxaroteko eskatu nion. Oso urduri nengoen... izerditan-blai! Baina berarengana hurbildu, eskutik heldu eta nirekin ateratzeko eskatzera ausartu nintzen. Eta berak..baietz esan zidan! Nire poz hartan ez nintzen konturatu nola gertatu zen, baina bat-batean, ezpainetan musu bat ematen zidala sumatu nuen. Zirrargarria! Ordura arte izan nuen sentsaziorik onena izan zen musu hura. Jokoz kanpo utzi ninduen eta bigarren aldiz musukatu behar izan ninduen errealitatera bueltatzeko. Orduan bai, gozo-gozo musukatu ginon, begiak itxita, eta besarkada bero eta luze batean bat eginda.

Gorka

## BAKARKA EGITEKO ARIKETA

### 3.1 Esaldiak moldatu

Jarraian dituzu elkarrizketan entzun dituzun hainbat esaldi. Nola esango zenituzke beste era batera? Idatzi zure proposamena eta ondoren, ikusi ereduak

Niko, lana, erosketak egin eta amarekin medikuareneara joatea **kenduta**, dena libre  
 Niko, lana, erosketak egin eta amarekin medikuareneara joatea **izan ezik**, dena libre

Goazen beste **norabaitera!**  
 Goazen beste **leku batera!**

Ni ordurako guztiz **tontotuta** nengoen zutaz  
 Ni ordurako guztiz **txoratuta** nengoen zutaz

Zu ez zinen ezertaz **jabetzen** eta ni ere ez nintzen ausartu egin behar nuena egitera  
 Zu ez zinen ezertaz **konturatzen** eta ni ere ez nintzen ausartu egin behar nuena egitera

**Bazeneukan** zuk ere lehen pausoa **ematerik!**  
 Zuk ere **eman zenezakeen** lehen pausua

**Alkoholari esker** elkartutako bikoteen klubekoak gara  
**Alkohola dela medio** elkartutako bikoteen klubekoak gara

Kalimotxo litro pare bat kostatu zitzaizun, **akordatzan?**  
 Kalimotxo litro pare bat kostatu zitzaizun, **gogoratzan?**

**Suposatzen dut** ezetz, baina garai hartan bizitza...  
**Uste dut** ezetz, baina garai hartan bizitza...

Orain **erridikulua egiteari ez diot hainbesteko beldurrik**  
 Orain **ez daukat barregarri geratzeko hainbesteko beldurrik**

## TRANSKRIPZIOA

W-JON: Planik gaur bai?

W-JONE: Niko, lana, erosketak egin eta amarekin medikuarenera joatea kenduta dena libre.

W-JON: Orduan egidazu tartetxo minimo bat zure zerrenda horretan.

W-JONE: Dena libre ironia zen.

W-JON: Eguerdiko kafe garaian 10 minutu.

W-JONE: Non?

W-JON: Tontodromoan

W-JONE: Eguraldi honekin?

W- JON: Bai. Han behar du.

JONE: Baina Zergatik geratu gara hemen Jon? Goazen beste norabaitera.

JON: Bale baina lehenago zerbait egin nahi dut.

JONE: Ba hementxe gaude, tontodromoan, zer da egin nahi duzun gauza hori?

JON: Elkarrekin hasi ginenean hona etorri ginen pare bat aldiz.

JONE: Ia, baina oraindik ez genbiltzan elkarrekin.

JON: Bueno zu nirekin igual ez, baina ni ordurako gutiz tontotuta nengoen.

JONE: Ba ez zaizu gutiz pasa hori jaja.

JON: Zurekin tontotuta Jone, eta hemen geratzeko eskatzen nizun, modu horretan uste nuelako asmatuko zenuela zer nahi nuen.

JONE: Zer asmatu behar nuen ba? Benga Jon goazen hemendik bustitzen ari gara eta.

JON: Baina ez, ez zinen ezertaz jabetzen, eta ni ere ez nintzen ausartu egin behar nuena egitera.

JON: Hau da duela 20 eta piko urte egiten ausartu ez nintzena.

JONE: Muxu bat emateko? Horretarako "montau" duzu teatrotxo guzti hau?

JON: Ba bai eta esan ezazu nahi duzuna baina honez gero muxu hau ia ezin didazu kendu

JONE: Zapatak busti bustiak ditut.

JON: Hainbesterako izan al da ba? Zapatak bustitzeraino berotu zaitut musu batekin?

JONE: Hahahah Jon! "Marrano"!

JON: Orain ia lasai geratu naiz, gosaltzera gonbidatzen zaitut.

JONE: Ez daukat denbora larregirik lanera itzuli behar dut.

JON: Lasai, eramango zaitut, baina goazen gosaltzera bestela Rodolfo Valentino, memento honek pulmonia (pneumonia) batekin amaituko dugu eta

JONE: Harrituta utzi nauzu Jon. Zu ez zara inoiz erromantiko bat izan.

JON: Baina Teatrero samarra bai ezta?

JONE: Jajajja bai hori bai, baina ez dakit Tontodromoarena, benetan bertara joaten ginenean ez zinela ausartzen laztan bat ematen?

JON: Badakizu ezetz.

JONE: Ni desiatzen nengoen.

JON: Ba bazeneukan zuk ere lehen pausoa ematerik

JONE: Bai klaro, garai hartan lehen pausoa zuek eman behar zenuten, badakizu hori.

JON: Ba ikusi, niri kostatu zitzaidan.

JONE: Bai kalimotxo litro pare bat kostatu zitzazun, akordatzen?

JON: Bai, baina ez dut gogoratu nahi.

JONE: Alkoholari esker elkartutako bikoteen klubekoak gara, zer tristea!

JONE: Elkarrekin bizi ginenean ez zenukeen sekula gaur tontodromoan egin duzuna egingo.

JON: Suposatzen (Uste) dut ezetz, baina garai hartan bizitza guztia aurretik nuela iruditzen zitzaidan.

JONE: Ta gaur egun ez?

JON: Ba ez, adin honekin jada bizitzaren tontorrean izan gara eta mendian behera goaz orain.

JONE: Joer Jon, ez zaitez orain dramatiko jarri.

JON: Ez da drama bat, egi zientifikoa da, bizitzaren legea eta abantailak ditu. Orain, nik behintzat erridikulua egiteari ez diot hainbesteko beldurrik.

JONE: Hori agerikoa da...

JON: Zu lehen ez zinen hain gaiztoa. Heidi izatetik Merkel izatera pasatu zara.

JONE: Hori ere onartuko dizut. Eskerrik asko Jon.

JON: Zergatik? Gosariagatik? Niri tokatzen zitzaidan gaur ordaintzea.

JONE: Gosariagatik ez. Gure Tiffanis-ko Gosariaren bertsio moduko hau asmatzeagatik.